

Administrazio espedientea / Expediente administrativo	
Espediente zk. Nº expediente	
Interesduna Persona interesada	NAN / IFZ DNI / NIF
Gaia Asunto	Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Derecho de acceso a la información pública

Aurrekariak

Eskabidea: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Eskabide-data: 2026/01/23

Antecedentes

Solicitud: Derecho de acceso a la información pública

Fecha de solicitud: 23/01/2026

Aplikatu beharreko araudia

[Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua.](#)

Normativa aplicable

[Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.](#)

Ebazpena

LEHENENGOA.- ONARTZEA eskatutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera.

BIGARRENA.- 1. puntuari dagokionez, jakinarazten da animalien osasunaren eta, batez ere, animalien ongizatearen alderdiak arautzen dituen 137/2016 Foru Dekretua Animaliak Babesteko 6/1993 Legearen garapena dela.

Etxeko animaliak babesteari buruzko 9/2022 Lege berria argitaratu ondoren, indargabetuta geratu dira 6/1993 Legea eta haren ondorioz emandako gainerako araudi guztiak.

Horregatik indarrean dagoen 9/2022 Legea baino ez zen aipatu SAIP-00111 informazio-eskaerari erantzun zitzaienez.

2. puntuari dagokionez, Abeltzaintza Zerbitzuari 2025/07/24an egin zitzaien probak egiteko eskaera; Leioako San Bartolome jaietako batzordeko ordezkari batek egin zuen.

Baimena antolatzaileei eta Leioako Udalari bidali zitzaizkien, azken hori baitzen ikuskizuna egiteko erabiliko zen espazio publikoaren titularra. Azken egitate horrek nahasmena eragin zuen SAIP-00111 eskaerari emandako erantzunean.

Resolución

PRIMERO.- ADMITIR la solicitud de acceso a la información pública solicitada.

SEGUNDO.- En relación al punto 1 se informa que el Decreto Foral 137/2016 que regula aspectos de sanidad animal y sobre todo de bienestar animal resulta del desarrollo legislativo de la Ley 6/1993 de Protección de los animales.

La publicación de la nueva Ley 9/2022 de protección de los animales domésticos ha derogado la Ley 6/1993 y todo el resto de las normativas que derivan de la misma.

Por ello, en respuesta a la solicitud de información SAIP-00111 se hizo mención únicamente a la Ley 9/2022 en vigor.

Sobre el punto 2, la solicitud al servicio de Ganadería para la celebración de las pruebas fue realizada con fecha 24/07/2025 por un representante de la Comisión de Fiestas de San Bartolomé de Leioa.

La autorización fue remitida tanto a la organización solicitante como al Ayuntamiento de Leioa, por entender que es éste el titular del espacio público donde se iba a celebrar el espectáculo. Este último hecho provocó la confusión en la contestación emitida al SAIP-00111.

3. puntuari dagokionez, Abeltzaintza Zerbitzuan ez dago jasota probetan parte hartu zuten animaliek ekidoen lekualdatze-txartela (TME) zutenik.

HIRUGARRENA. – Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari.

Ebazpen honen aurkako errekurtsuak

Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari, hilabeteko epean, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatzen denaren arabera. Interesatuak zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango du, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan; bi kasuetan, jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

En relación al punto 3, no consta en el servicio de Ganadería que ninguno de los animales participantes en las pruebas dispusiese de la TME, Tarjeta de Movimiento Equino.

TERCERO. - Notificar la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales.

Recursos contra la presente Resolución

Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción .

Sin./Fdo.: ANDONI AGIRREBEITIA ABENDIBAR - 2026-02-05
NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE AGRICULTURA

Akordioa/Acuerdo: R1 00159/2026 - Data/Fecha: 2026-02-05
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-02-05